

Zalantzak eta kontraesanak poema bihurtuta

Unai Baztarrikak
'Ezinbestean' lehen liburua
argitaratu du, Blas de Otero
lehiaketaren irabazlea


DONOSTIA – Bilboko Udalak antolatutako Blas de Otero poesia lehiaketak bere fruitua dakar. Seigarren edizioko –2013an– irabazleak, Unai Baztarrikak (Beasain, 1982) bere lehenengo poesia liburua plazaratu du Erein argitaletxearekin, *Ezinbestean*. Gai unibertsalak jorratu ditu 63 orrialdetan zehar: zalantzak, beste pertsonen beharra, denbora,

aberria eta maitasuna ageri dira, besteak beste. “Berrirakurketan oso gogorra egin zaidan arren, poesia baikorrek ere badaude liburuan”, adierazi zuen beasaindarrak.

Baztarrikaren iritziz, liburu hau “oso lan fragmentarioa da”, ez baitzuen liburua izateko idatzi. “Poesia solteak dira, pentsatu gabe idatziak”, esan zuen. Hala ere, bere lanaren laburpena idazteko eskatu ziotenean, beren artean lotura ugari aurkitu zituela azaldu zuen. Batetik, “hormaren pitzadurak” ageri dira poema guztietan. “Dekadentzia hori ez da negatiboa, aldaketa baten hasiera baizik”, zioen Baztarrikak.

Bestalde, guztiak oso sentipen pertsonalak direla aitortu zuen. “Liburuaren bizkarrezurra bi aste-tan idatzi nuen, sentitzen nuena bat-batean islatu bainuen paperean”, adierazi zuen, guztietan egiazkoa den zerbait dagoela gehituz. Gainera, zalantza eta kontraesan asko aurkitu ditu bere lanean *Ezinbestean* liburuaren egileak. Idazteko orduan hartutako bideez hitz egitean, “hitzak, paisaiak, formak eta eromena” aipatu zituen.

Ingenieritzaren munduan lan egiten duen arren, gaztetatik gustatu zaio idaztea Baztarrikari, Azkue eta Urruzuno sariak irabazi dituelarik.



Unai Baztarrika bere liburu berriarekin, atzo. Argazkia: Ruben Plaza

Hamar urte idatzi gabe egon eta gero, Baztarrikak “oso sentipen pertsonalak” islatu ditu bere lehenengo poesia liburuan

“Hamar urte pasa ditut idatzi gabe, eta orain Bergarako idazle eskolan hasi naiz, diziplina bat eduki eta berriro ere idazten hasteko”, azaldu zuen, eta liburu honekin “idazten berrikasi” zuela gaineratu zuen Baztarrikak. – M.E.